

Gure bazkideekin (parkingetako jabeak) hitz egiteko bilerak egiten saiatuko gara. Etengabeko harremana izango dugu beraiekin, haien iradokizunetan interes handia daukagulako.

→ Arcona Ibérica S.A.U enpresa kontaktatuko dugu, Megapark komertzial zentroetan instalatzeko. → Grupo kontinental parking enpresa kontaktatuko dugu, Bilbon dituzten hainbat parkingetan instalatzeko.



Gure bezeroekiko harremana zuzena eta kordiala izango da, bezero-arreta oso ona izango da, horretarako gure informatikoa egongo da. Kezkak erantzuteko eta bezeroak fidelizatuko ditugu hauek pozik mantenduz. Gure web orrialdean bezero-arreta atala ezarriz aparte, foro bat egongo da non bezero bakoitzak bere iritzia jarri ahal izango du eta beraien artean lagundu ahalko dira.

Horretaz aparte egiten diren galdera ohikoei erantzundako atala egongo da, hala nola, non aurkitu dezaketen gure zerbitzua, nola ordaindu...

Denbora batean gure zerbitzua erabiliz edo egun garrantzitsuetan, beherapenak egongo dira eskuragarri bezero guztientzako.

Bestalde, autoen salmenta etxeekin harreman estua izango dugu, horrela, haien bezeroei gure ideia saltzea lor dezakegu. Horretarako, saldutako kotxe elektriko bakoitzari dohainik hilabete bateko Premium proba eskainiko diegu.

